

Nafarroako aurrezki kutxen bat-egitea

Legez gaur sortuko da Nafarroako Kutxa, Foru Erkidegoko bi kutxen fusioak sortuta

Estatutu aldeketei atzo eman zien, azkenik, baietza Espainiako Ekonomia Ministerioak

Irene Arrizirieta / Iruñea

Legez gaur sortuko da Nafarroako Kutxa, Foru Erkidegoan dauden Nafarroako Aurrezki Kutxak Iruñeko

bereganatu eta gero. Bereganatze bidez egindako bat-egitea ilbeltzaren 3an gauzatzekoa bazen ere, kutxa berriaren estatutu aldeketei Espainiako Ekonomia Ministerioak eman

beharreko baietza ez zen atzo arte iritsi. Miguel Sanz presidentearen ustez, herrialdean azken 50 urteetan egin den «finantza operazio garrantzitsua» da bi erakundeon fusioa.



Lorenzo Riezu, Miguel Sanz, Yolanda Barcina eta Manuel Lopez Merino, atzoko agerraldian.

GAUR goizean notarioak estatutuak sinatu, eta Merkataritza Erregistroan izena eman ondoren izanen da legezkoa Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Bahitura Etxea Foru Erkidegoko bi kutxen bat-egitea eta gero sortu den erakundea.

Legezko izena Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Bahitura Etxea izanen den arren, merkataritza deitura Nafarroako Kutxa (NK) izanen da. Bereganatze bidez egin den bat-egitea ilbeltzaren 3an gauzatzekoa bazen ere, kutxa berrirako egin estatutuen onarpenak prozesua bi astez atzeratu du. Falta zen Espainiako Ekonomia Ministerioaren baietza atzo iritsi zen, eta gaur sortuko da, legez bederen, Nafarroako Aurrezki Kutxak (NAK) Iruñeko bereganatu eta gero sortu den NK.

Miguel Sanz, kutxa berriko presidentearen esanetan, estatutuak 1976ko NAKren bigarren xedapen gehigarrian

eta Espainiako Konstituzioak herrialde historikoei euren finantzak kudeatzeko ematen dien eskumenean oinarriturik aldatu ziren, eta «Espainiako Ekonomia Ministerioak ere horretan oinarriturik eman du baietza», azaldu zuen atzo.

Legez, bereganatzea eginda egon arren, orain «benetako bat-egitea falta da». 400.000 bezero eta Nafarroako merkatuaren ia %45 izanen duen NKren erabateko fusioa egiteko 13 talde sortu ziren, eta horietatik atera diren talde berriek 2000. urtea dute bat-egitea gauzatzeko.

Administrazio Kontseilu berriak besterik erabakitzen ez duen bitartean, NK-ko zuzendaria Lorenzo Riezu NAK-eko zuzendari izana izanen da, eta zuzendariorde gisa Manuel Lopez Merinok jardungo du, orain arte Iruñekoaren zuzendari lanetan aritutakoa.

Printzipioz, herrialdean dituen 255 bulegoak man-

Kutxa berriaren datuak

NAFARROAKO AURREZKI KUTXA ETA BAHITURA ETXEA

Bi entitateen aktiboen batura	923.304 milioi pezeta
Kredituak	515.909 milioi pezeta
Gordailuak	754.000 milioi pezeta
Etekinak lehen seihilekoan	5.693 milioi pezeta
Eraginkortasun ratioak	%55,7
Baliabide bolumena sukurtsaleko	5.000 milioi pezeta
Nafarroako merkatu kuota berria	%40-%50
Bezeroak	400.000 baino gehiago
Bulegoak Nafarroan	255
Langileak	1.300etik gora, 1.237 finko

Sei hilabetetan, bateratze informatikoa

I. A. / Iruñea

LORENZO RIEZU, oraingoz NK-ko zuzendaria izanen denak aurreratu duenez, bi kutxen arteko bat-egitean bateratuko den lehen prozesua informatikarena izanen da. Hasieratik bi entitateek erabaki zuten Nafarroako Aurrezki Kutxaren informatikak zerbitzari finantzieroa

hartzea, oso emaitza onak eman dituelako herrialdeko kutxan zein beste batzuetan.

Dena uste bezala badoa, sei hilabete barru egin da bateratze informatikoa, hau da; bi kutxak sistema informatikoa bera erabiliko dute, eta datu guztiak eskura izanen dituzte bulegoetan.

MIGUEL SANZ

NK-ko presidentea

«Nafarroan azken 50 urteetan egin den finantza operazio garrantzitsua da»

«20 kidez osatutako Administrazio Kontseilu berria hilaren bukaeran bilduko da»

tenduko ditu kutxa berriak eta mugagabeko kontratuan dauden 1.237 langileak ere.

20 kideko Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua 20 kidek osatuko dute: Nafarroako Gobernuak hamarrek (presidentea eta kontseilariak), Yolanda Barcina Iruñeko alkateak eta Gobernuak eta Udalak aukeratutako beste sei eta hiru lagunek, hurrenez hurren. Aurretik jakina zen bezala, EHk izan ezik beste alderdiek izanen dute ordezkartza kutxa berrian.

Bestalde, langileek ere ordezkari bat edukiko dute, eta auzokideek ezarle bat. Estreinakoz ez da UPNk proposatutako norbait izanen. Orain arte aulki hori berriko zendutako Jesus Aizpunek zuen eta.

Kutxa berriko presidentearen ustez, Administrazio Kontseilu berria hilaren bukaeran bilduko da. Orduan erabakiko du industria sustatzeko erakunde bat eta fundazio soziala sortuko diren ala ez.

Jakina da UPNko gobernua bi erakunde horiek sortzearen aldekoa dela, baina «Administrazio Kontseiluko beste kideen iritzia jakin nahi dugu», adierazi zuen atzo Barcina NK-ko presidenteardeak.

Bestalde, Sanzen iritziz, gaur gauzatuko den kutxa berriaren sorrera «Nafarroan azken berrogeita hamar urteetan egin den finantza operazio garrantzitsua da». Bere ustez, «Foru Erkidegoko gizarteari onura eta aberastasuna ekarriko dizkion bat-egitea da».